

IKASTETXEA	Lekaroz BHI		
IZENBURUA	Pitzadura bat elur izoztuetan	MAILA	2. DBH
IRAKASLEA	Josu Cabodevilla eta Jon Gorrotxategi	IKASGAIA	Euskara

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

1. ATAZA

PITZADURA BAT ELUR IZOZTUETAN

Philippe Auguste Bloy pitzadura batean erori zelako albistea Lehen Kanpamendura iritsi zenean – arratsaldeko azken orduan, sherpa baten bitartez-, isiltasun larria egin zen espedizioko gizon guztien artean. Mendigoizaleak une hartan edaten ari ziren te beroaren lurrina hoztuz joan zen, ahazturik ontzietan; eta erabat itzalita ere bazegoen Mathias Reimz –Dhaulagiria igotzeagatik ospetsu egindako ginebrarra, taldeko burua- isiltasun hura hautsi eta galdera bat egitera erabaki zenerako.

“Ezin huen herorrek atera, Tamng?”, galdetu zion sherpari. Bere hitzak sei mila metroko haizearen intziarekin nahastu ziren.

Sherpak ezetz egin zuen buruarekin.

“Chiiso, Mister Reimz”

Erantzunaren ondorengo isilunea hasierakoa baino etsiagoa izan zen oraindik. Tamng-en arrazoia taxuzkoa zen, inork ezin zezakeen dudatan jarri. Hotza, gauez, latzegia zen Lhotse inguruetakoa haranetan. Zero azpiko berrogei gradutakoa. Edo handiagoa. Temperatura haiekin, gainera, izotzaren erresuma egonezinez jarri eta mugitu egiten zen. Pitzadura berriak sortzen ziren edonon, eta zahar asko, berriz, betirako itxi. Zauritu baten garraioak beste kondizio batzuk eskatzen zituen.

“Zein seinale utzi duk, Tamng?”

Sherpak bizkarra erakutsi zion. Alegia, bere nylonezko motxila gorria zegoela Philippe Auguste eroritako lekuan. Iltze batekin ondo ziurtatuta, noski.

“Bizirik gelditu ote da?”

“Ez jakin, Mister Reimz”.

Hurrengo goizean eta eguzkiarekin egin beharko zen salbamendu ekintza zeukaten denek gogoan; eta hala, harritu egin ziren Mathiasek –linterna eta sokak eskatzearekin batera- kranpoiak jartzeari ekin zionean. Segituan ateratzeko asmoa zuen ginebrarrak.

“Lemu mindu” esan zion, protestako keinuak eginez, Gyalzen sherpa zaharrak. Erabaki hark ez zeukala onik.

“Ilargiak lagunduko zidak” erantzun zion Mathiasek burua zerurantz jaso. Ilargiari oso gutxi falta baitzizaion betetzeko.

Segidan –adi begiratzin zioten adiskideengana zuzenduz- ez zuela inoren laguntzarik onartuko adierazi zien serio. Bakar-bakarrik joango zela. Inori egokitzekotan, berari zegokiola arriskatzea.

Mathias Reimz-ek eta Philippe Auguste Bloy-k elkarrekin lan egiten zuten Ginebra inguruetakoa ski ibiltokietan, eta espedizioko europarrek zentzu horretan ulertu zuten erabakia, tratatuz luze batek sortutako adiskidantza ildotik. Sherpek, berriz, taldeko buru edo erantzule bezala jokatzin zuela pentsatu zuten. Edonola ere, jokabide hura miresgarri iruditzen zitzaizkien guztiei. Mathiasek beste gizon baten bizitza salbatzeko jartzen zuen berea jokoan. (...)

Azken agurtzat, Gyalzen zaharrak errezo oihal txuri bat astindu zuen airean, eta Vishnu jainkoaren babesa ziurtatu zion hartara.

Inork ez zuen egia errezelatu. Inori ere ez zitzaion bururatu erabaki horren oinarrian gorrotoa egon zitekeela.

Philippe Auguste Bloy-ri min egiten zioten hautsita zeukan hankak eta saihetseko urradura sakonak, baina halere, mina ez zen nahikoa pitzadura barruko hotzak eragiten zion loa uxatzeko. Eta horregatik ez zen ohartu goitik bota eta bere anorak gainera eroritako soke; ezta, geroxeago, soka haietatik berarengana jaitsi eta aurrean jarri zitzaion gizonaren presentziaz ere. Alabaina, gizonak piztutako linterna inguratu zion aurpegira, eta Philippe Augustek, garrasika ustekabeagatik, begiak zabaldu zituen erabat. (...)

“Ken egiak linterna hori, Tamng!” esan zuen irribarrez, eztarriko marrantak eztulka desegin eta gero. Salbu ikusten zuen bere burua.

“Mathias nauk”, entzun zuen orduan. Hitz haiek amenazua adierazten zutela iruditu zitzaion.

“Zeren bila etorri haiz, Mathias?” galdetu zuen azkenean.

Ez zion segituan erantzun. Gero, urruti batetik bezala hasi zitzaion, hunkituta zirudien ahots lodituaz.

“Lagun bezala hitz egingo diat, Phil, bihotzetik bihotzera. Elkar ezagutu genuenean, Vera eta biok oso gazteak gintuan, Phil” segitu zuen Mathiasek. “Hamabost urte-edo edukiko genizkian. Eta orduan ez huen neska polita. Itsusia ere bazela esango nitek. Luzeegia bere urteetarako, eta hezurtsua, oso hezurtsua. Eta hala eta guztiz ere, ezagutu orduko gustatu zitzaidakean. Gustatu baino gehiago. Egia esan behar badiat, barnean zerbait lehertu izan balitzait bezala sentitu ninduan, eta negarrez hasteko gogoia egin zitzaidakean bat-batean. Aspaldiko sentipen haiek ez zitzaizkidakean ezeztatu biok ezkondu ginenean ere. Esango nitek orduan baino gehiago maitatzen dudala orain. Beti Vera gogoan, halaxe bizi nauk ni. Dhaulagirira igo nintzenean ere bere erretratuarekin igo ninduan. Hik badakik zer esaten duten mendigoizale askok, aurrenekoa Mendia dela, eta gero gainerakoak. Baina nik ez diat halakorik uste. Nik neure emaztea jartzen diat gailurrean. Orain arte behintzat hala izan duk beti”.

Mathiasek arnasa hartu zuen, luze. Gero isilik gelditu zen.

“Ez gaituk behin ere oheratu, Math!”, egin zuen oihu bat-batean, berriro gorputza altxaz, Philippe Augustek.

“Erotuta bezala gelditu ninduan jende batek zuen erretratuak erakutsi zizkidanean, Phil. Vera eta hi Municheko Ambasador hotelean, eskutik hartuta, martxoaren hamasei eta hamazazpian. Eta baita Lausanako Villiers lakuan ere, aste oso bat, ekainaren hirutik hamarrera. Ni espedizio hau prestatzen ari nintzen bitartean, hain justu”.

Philippe Augustek lehortuta zeukan ahoa. Honek gogortutako aurpegia mugimendu bortitz batek astintzen zion.

“Garrantzia ematen diek batere ez daukaten gauzei, Math”, argudiatu zuen.

“Duda handiak eduki dizkiat”, segitu zuen Mathiasek. “Orain artean ez diat sekula inor hil. Ez nauk hiltzailea. Eta gaizki sentitzen ninduan hire heriotza desiratzen nuelako. Katmandun ahalegin bat egitekotan egon ninduan. Baina, niretzat leku sakratua duk hura. Ez nian hire odolarekin zikindu nahi. Baina Mendiak entzun egin zidak. Mendiak epaitu egin hau, Phil, eta pitzadura honetara bota hau. Ez zekiat, baina iruditzen zaidak elur horietan geldituko haizela betirako. Eta horregatik etorri nauk. Zenbat gorrotatzen haudan esan nahi nian. Nire ustez, hori jakinda joan beharra heukan beste mundura”.

“Atera nazak hemendik, Math!” Larritasunez, Philippe Augusteri dardarrez hasi zitzaion beheko ezpaina.

“Ni ez nauk nor, Phil. Esan diadan bezala, Mendiak erabakiko dik”.

“Hik uste duk beste guztiok baino hobeeagoa haizela, Math. Ez badakik ere, ondo ezagutzen hauten guztiek mesprezioz begiratzen diate!”

Philippe Augusteren doinua ere mesprezuz beteta zegoen orain. Beranduegi, ordea, Mathias Reimz soketan gora baitzihoan ordurako.

“Berak nigar egingo dik niregatik. Hiregatik ez likek egingo!” deitu zion.

Pitzaduraren barrua ilunbetan gelditu zen osterera.

...

ATXAGA, Bernardo, Obabakoak

JATORRIA	
EGILEA	Bernardo Atxaga
IZENBURUA	Obabakoak eleberriko pasarte (Pitzadura bat elur izoztuan)
ARGITALETXEA/Webgunea	Erein
URTEA	1991
ORRIALDEA (K)	345-350
ISBN	84-7568-218-9
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Narrazioa
ERABILERA	Hezkuntza

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

Estrategiak zehazten hasi aitzinetik garbi utzi nahi dugu Atxagaren Obabakoak eleberritik ateratako pasarte honen irakurketaren bidez ikasleen ulermen-gaitasuna landu nahi dugula (**helburua**).

1.- Egileari buruzko aurretizko ezagutzak aktibatzea.

Ikasleei irakurri beharreko pasartearen jatorriaren berri emanen diegu (idazlea eta eleberria). Hortik aitzinera era honetako galderak egingen dizkiegu:

- Nor da Bernardo Atxaga?
- Zein garrantzia du euskal literaturaren eremuan?
- Ezagutzen (irakurri) al duzue Atxagaren beste istoriorik; “Bagdadeko morroia” adibidez.
- Ikusi al duzue *Obabakoak* filma?

2.- Narrazioari buruz, irakurri aurretiko hipotesiak egitea:

- Zein genero literarioaren aitzinean egon gaitzke?
- Zer iradokitzen dizue istorio honen izenburuak?
- Non iruditzen zaizue gertatzen dela?

Galdera hauen guztien bitartez, ikasleen irakurgaiarenganako interesa eta ulermen ahalmena suspertuko ditugu.

IRAKURRI BITARTEAN

1.- Testu mota, berariazko testu-generoa eta berariazko egitura identifikatzeko estrategiak

Atal honetan istorioaren ulermenarekin, eta bereziki narrazio generoarekin, lotura zuzena duten era askotako galderak egingo dizkiegu ikasleei:

Irakurri ahala erranen digute (ahoz), esate baterako:

- Zer gertatzen ari da?
- Non gertatzen ari da?
- Noiz gertatzen ari da?

Era honetako galderari esker, ikusiko dugu ikasleak zenbateraino ari diren istorioa ulertzen.

2.- Informazio garrantzitsua markatu pertsonaiei, lekuari, denborari eta ekintzei ... aipamena egiten dieten hitzak azpimarratuz.

IRAKURRI ONDOREN

1.- Irakurri aitzinetik egin ditugun hipotesiak zenbateraino bete diren ala ez ikusiko dugu (pertsonaiak, narrazioaren denbora, lekua...).

2.- Inferentziak egitea.

Horretarako, era honetako galderak egingen ditugu:

- Lagun-minak al dira Philippe Auguste eta Mathias Reimz?
- Zergatik joan zen Mathias Reimz pitzadurara?
- Sherpen ustez, Mathias Reimzen jokabidea miresgarria da?
- Nor ari zaigu istorioaren berri ematen?
- Zein da narratzailearen jarrera? Pertsonaia baten alde dago?